

**2021ko ZERGA ORDENANTZAK**

**ORDENANZAS FISCALES 2021**

<p><b>1.01.-ZERGA: ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO DITUEN ORDENANTZA FISKALA.</b></p>	<p><b>1.01.-IMPUESTO: ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES.</b></p>
<p><b>1.01.1.- XEDAPEN OROKORRAK.</b></p> <p><u>1. Artikulua.</u></p> <p>Udal honek, Ondasun Higiezin gainen Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 14.3 artikulua ematen dion zilegadura erabiliz, 4/2003ko martxoaren 19ko Foru Arauaren bidez aldatutako udal zergak ordaintzeko sistemari lotuta, ondorengo artikuluan ezarritako terminoetan finkatzen du Zerga honen karga tasa.</p>	<p><b>1.01.1.- DISPOSICIONES GENERALES.</b></p> <p><u>Artículo 1.</u></p> <p>Este Ayuntamiento, haciendo uso de la autorización que confiere el art. 14.3 de la Norma Foral 12/1.989, de 5 de Julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, modificada mediante Norma Foral 4/2003, de 19 de marzo, de reforma del Sistema de tributación local, fija el tipo de gravamen de este Impuesto en los términos que se establecen en el artículo siguiente.</p>
<p><b>1.01.2.- KARGA TASAK.</b></p> <p><u>2. Artikulua.</u></p> <p>1. Hiri ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezin gainen Zergaren karga tasa ERASKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean geratzen da finkatuta.</p> <p>2. Landa ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezin gainen Zergaren karga tasa ERASKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean geratzen da finkatuta.</p>	<p><b>1.01.2.- TIPOS DE GRAVAMEN.</b></p> <p><u>Artículo 2.</u></p> <p>1. El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los bienes de naturaleza urbana queda fijado en el tanto por cien que se indica en el ANEXO.</p> <p>2. El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los bienes de naturaleza rústica, queda fijado en el tanto por cien que se indica en el ANEXO.</p>
<p><b>1.01.3.- ZERGA OINARRIA ETA KUOTAK.</b></p> <p><u>3. Artikulua.</u></p> <p>1. Hiri Ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezin gainen Zergaren Oinarria,</p>	<p><b>1.01.3.- BASE IMPONIBLE Y CUOTAS.</b></p> <p><u>Artículo 3.</u></p> <p>1. La Base Imponible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicado a los Bienes de</p>

<p>ondasun horien balio katastrala izango da.</p> <p>2. Landa Ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Oinarria, erregelamenduz onetsitako balio katastrala izango da.</p> <p>3. Zerga honen kuotaren zehaztapena aurreko ataletan adierazitako Zerga Oinarriari Ordenantza honetako 2. artikuluan finkatutako hurrenez hurreneko karga tasak aplikatuz lortuko da.</p>	<p>naturaleza Urbana, estará constituida por su valor catastral.</p> <p>2. La Base Imponible del Impuesto de Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de naturaleza Rústica estará constituida por el valor catastral reglamentariamente aprobado.</p> <p>3. La determinación de la cuota de este Impuesto se obtiene aplicando a las Bases Imponibles expresadas en los apartados anteriores los tipos de gravamen respectivos, fijados en el art. 2 de esta Ordenanza.</p>
<p><b>1.01.4.- KUDEAKETA ARAUAK.</b></p> <p><u>4. Artikulua.</u></p> <p>1. Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskerarako ahalmenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren gain eskuorde daitezke, Udal Batzarreak erabakitako terminoetan, edukian eta eremuan, horretarako hitzarmen egokia izenpetuz.</p> <p>2. Hartuko den udal erabakia GAO-n emango da argitara onartu ondoren.</p>	<p><b>1.01.4.- NORMAS DE GESTION.</b></p> <p><u>Artículo 4.</u></p> <p>1. Las facultades de gestión, liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto, podrán delegarse en la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los términos, contenido y alcance que el Ayuntamiento Pleno determinen, suscribiendo al efecto el oportuno convenio.</p> <p>2. El acuerdo municipal adoptado se publicará en el B.O.G. una vez aceptado.</p>
<p><b>1.01.5.- HOBARIAK.</b></p> <p><u>5. Artikulua.-</u></p> <p>Ondorengo hobariak egingo dira:</p>	<p><b>1.01.5.- V. BONIFICACIONES.</b></p> <p><u>Artículo 5.-</u></p> <p>Se establecen las siguientes bonificaciones:</p>
<p>- - HOBARIAK</p>	<p>- - BONIFICACIONES</p>

<p>1. Zerga kuota osoaren %50eko hobaria, beti ere interesatuek obrei ekin aurretik hala eskatzen badute urbanizatzeko, eraikitzeko eta sustapen enpresek egiten duten jardueraren xede direnentzako, bai obra berriak egiteko hala nola eraberritzeko, eta horiek haien ibilgetuaren artean azaltzen ez direnean.</p>	-		<p>1. Del 50% de la cuota íntegra del Impuesto, siempre que así se solicite por los interesados antes del inicio de las obras, para los inmuebles que constituyan el objeto de la actividad de las empresas de urbanización, construcción y promoción inmobiliaria tanto de obra nueva como de rehabilitación equiparable a ésta, y no figuren entre los bienes de su inmovilizado</p>
<p>Hobari hau aplikatzeko epea obrak hasi ondorengo zergalditik eta amaitu ondorengo zergaldira bitartekoa izango da, beti ere denbora horretan urbanizatzeko edo eraikuntza lanak benetan egiten badira. Epealdi horrek ezingo ditu inoiz hiru zergaldi gainditu.</p>	-		<p>El plazo de aplicación de esta bonificación comprenderá desde el periodo impositivo siguiente a aquel en que se inicien las obras hasta el posterior a la terminación de las mismas, siempre que durante ese tiempo se realicen obras de urbanización o construcción efectiva, y sin que, en ningún caso, pueda exceder de tres periodos impositivos.</p>
<p>2. Familia ugariak. Zerga kuota osoaren gaineko hobaria jartzen da familia ugariko titularrak direnentzat. Hobari hau taula honen arabera arautua dago: 5 seme-alaba dituzten familientzat, % 50, eta 6 seme-alaba edo gehiago dituztenentzat, %90.</p>	-		<p>2. Familias numerosas. Se establece una bonificación sobre la cuota íntegra del Impuesto a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa según la tabla siguiente: el 50% hasta 5 hijos y el 90% para las de 6 o más hijos.</p>
<p>Hobaria bakarrik familiaren ohiko bizileku eta euren jabe diren etxebizitzari egingo zaio.</p>	-		<p>La bonificación solo alcanzará a la vivienda de su propiedad que constituya la residencia habitual de la familia.</p>

Hobaria egin ahal izango da ere garajerako erabiltzen den lokal batengatik eta beste bat trastetegirako.	-		La bonificación podrá alcanzar a un local destinado a garaje y otro a trastero.
Hobaririk ez da egingo merkataritzarako bideratutako finkengatik.	-		En ningún caso la bonificación alcanzará a fincas con destino comercial.
Interesatuak eskaera egiteko orduan, familia ugariaren titulu ofiziala aurkeztu beharko dute.	-		Los interesados deberán instar su concesión aportando el título oficial de familia numerosa.
Hobari hau jasotzen hasteko epea, eskaria egin eta hurrengo urtean hasiko da, eraikuntza berriko altamate kasuan izan ezik. Horiek, hilabeteko epea izango dute zerga honen lehen likidazioa jakinarazten den egunetik aurrera.	-		El efecto de la concesión de esta bonificación empieza a partir del ejercicio siguiente a la fecha de solicitud, excepto para las altas de nueva construcción, que dispondrán del plazo de un mes, a contar desde la fecha de notificación de la primera liquidación de este impuesto.
3. Kuota osoaren %50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitza berrietarako izango da, eta halaber, dela proiektuan ala erregistroan beraiei lotuta dauden garaje eta trastelekuetarako, beti ere behin betiko kalifikazioa eman ondoren, eta alokatzeko diren etxebizitza sozialentzat soilik.	-		3. Del 50% de la cuota íntegra del Impuesto a las viviendas de protección oficial de nueva construcción, así como a los garajes y trasteros vinculados a las mismas, en proyecto y registralmente, una vez que se otorgue la calificación definitiva, pero sólo para el caso de que se trate de viviendas sociales destinadas al alquiler.
Epea: 3 urte, behin betiko kalifikazioa eman ondoren.	-		Duración: 3 años contados desde el otorgamiento de la calificación definitiva.
4. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren % 50ekoa, dagokion eraikinean eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termikorako edo	-		4. Del 50% de la cuota íntegra del impuesto para los bienes inmuebles en los que se haya instalado voluntariamente sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la

<p>elektrikorako sistemak borondatez instalatu badira, betiere indarrean dagoen araudiari jarraiki obra horiek nahitaez egin beharrekoak ez badira. Hobari honek 3 urtez iraungo du, sistema horiek instalatzen direnetik, eta hobaria jasotzeko ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak izatea.</p>			<p>energía proveniente del sol, siempre que las mismas no resulten de obligada ejecución por la normativa vigente. La duración de esta bonificación se extenderá a 3 años, desde su instalación, y su aplicación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación por la Administración competente.</p>
<p>5.- Zerga kuota osoaren %50eko hobaria, Eusko Jaurjaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretu bidez etxebizitza hutsei buruz onartutako "Etxebizitza Hutsen Programa" barruan, edo antzekoak diren beste foru edo udal programa batzuen barruan erabilera-lagapena duten ondasun higiezinak dagokionez. Hobari hau 2021n aplikatu ahal izateko eskaerak 2021eko martxoaren 31rarte aurkeztu ahal izango dira.</p>	-		<p>5.- Bonificación del 50% de la cuota íntegra del impuesto para los bienes inmuebles cuyo uso sea objeto de cesión en el marco del "Programa de Vivienda Vacía" regulado por el Decreto del Gobierno Vasco 316/2002, de 30 de diciembre, o en el marco de otros programas forales o municipales similares. Para la aplicación de dicha bonificación en el 2021 las peticiones se podrán presentar antes del 31 de marzo de 2021.</p>

<p><b>1.01.6.- GAINKARGA.</b> <u>6. artikulua.</u></p>	<p><b>1.01.6.- RECARGO.</b> <u>Artículo 6.</u></p>
<p>1. Subjektu pasiboaren edo hirugarren baten - alokatuta edo erabiltzeko utzia- ohiko bizilekua ez den bizitokiko ondare higiezinak ordenantzaren eranskinean jasotzen den gainkargaren menpean geratuko dira.</p>	<p>1.- Los bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia habitual del sujeto pasivo o de terceros en virtud de arrendamiento o cesión de uso quedarán sujetos al recargo contemplado en el anexo de la presente ordenanza fiscal.</p>
<p>Errekargua ez zaie inola ere aplikatuko bizitegi erabilera ondasun higiezinak, izaera sozialeko etxebizitza planetara destinatuta daudenean.</p>	<p>En ningún caso será aplicable el recargo a los bienes inmuebles de uso residencial destinados a planes de vivienda pública de carácter social.</p>
<p>2. Bizilekuko higiezinak joko dira Katastroan etxebizitza gisa jasota dauden lokalak.</p>	<p>2.- Se entenderá por inmuebles de uso residencial los locales que estén recogidos</p>

<p>Horrela, horren barruan geratuko dira etxebizitzari emaniko eranskinak, baldin eta, erregistroan finka bakar modura azaltzen badira.</p>	<p>como de uso o destino de vivienda en el Catastro. Se incluirán los anexos a la vivienda siempre que formen una finca registral única.</p>
<p>3. Gainkarga sortuko da aplikatuko den zerga egiten den une berean, eta berori kuotarekin batera likidatuko da.</p>	<p>3.- El recargo se devengará en el mismo momento que el impuesto sobre el que se aplica y se liquidará conjuntamente con la cuota.</p>
<p>4.- Gainkarga hau aplikatzearen ondorioetarako, presuntzio egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezinaren bat ohiko egoitza dela, baldin eta zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dute.</p>	<p>4.- A efectos de la aplicación del recargo, se presumirá que un inmueble de uso residencial es residencia habitual, cuando a fecha de devengo del impuesto, en el padrón del municipio donde radique la vivienda conste que constituye la residencia habitual de su o sus ocupantes.</p>
<p>Halaber, ohiko bizileku gisa erabiltzearen froga izango da gutxienez 1000 kWh elektrizitate edo 2000KWh gas natural kontsumitu izana zerga sortu den momentuaren aurreko urtean.</p>	<p>Asimismo, se considerara como prueba de residencia habitual, el consumo de electricidad con un mínimo de 1000 KW o de gas natural con un mínimo de 2000KWh por vivienda en el año inmediatamente anterior a la fecha de devengo del impuesto</p>
<p>Puntu hori frogatzeko, aurkeztu beharko dira aurreko urteko elektrizitate-fakturak edo gas naturalen fakturak eta okupatzaileak identifikatzeko datuak jasotzen dituen aitortpen bat.</p>	<p>La prueba se acreditará mediante la presentación de las facturas de electricidad o gas natural correspondientes al año anterior y una declaración en la que consten los datos identificativos de su o sus ocupantes.</p>
<p>5.- Egiatzko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira errekaru hau aplikatuzetik, baldin sortzapenaren egunean inguruabar hauetakoren bat betetzen badute:</p>	<p>5.- Estarán exentos de la aplicación de este recargo los bienes inmuebles de uso residencial sin residencia habitual efectiva, en los que a la fecha de devengo concorra alguna de las circunstancias siguientes:</p>
<p>5.1.- Udal baimena edo aurrekomunikazioa behar duten jarduera profesional edo merkataritzakoak era jarraituan burutzen dituztenak (ekonomia-jarduerak). Eta, halaber, elkarte politikoaren, sindikatuen edo enpresen egoitza izateko direnak edo irabazi-asmorik gabe kokatzen diren erakundearen egoitzak.</p>	<p>5.1.- Los dedicados a actividades profesionales, comerciales y empresariales de forma continuada (actividades económicas), con licencia municipal o comunicación previa. Así como las destinadas a sedes de asociaciones políticas, sindicales o empresariales o en las que se hallen ubicadas entidades sin ánimo de lucro.</p>
<p>5.2.- Eraiki duten promotoreen izeneko ondasunak, betiere ez badira ohiko bizilekuak izan.</p>	<p>5.2.- Los bienes inmuebles cuya titularidad corresponda a los promotores que los hayan edificado, siempre que no haya constituido residencia habitual.</p>
<p>5.3.- Erakunde publikoren baten eskura</p>	<p>5.3.- Los puestos a disposición de alguna</p>

utzitako etxebizitzak, horien helburua alokatzea delarik.	entidad pública que tenga entre sus fines la puesta en alquiler de los mismos.
5.4.- Bat eginiko etxebizitzei, baldin eta, erregistroan bi finka modura eta errezibo desberdinak badituzte. Ondasunen jabea bakarra izan behar da.	5.4.-Las viviendas unidas físicamente, y que registralmente son dos fincas y tienen dos recibos diferentes. El titular de los bienes debe ser la misma persona.
5.5. Herentzia edo banatu gabeko herentzia bidez eskuratutako etxebizitzak, titularra hil ondorengo 2 urteko epean.	5.5. Las viviendas adquiridas por herencia o herencia yacente, durante el período de 2 años desde el fallecimiento del titular.
Egoera hau egiaztatu behar da, heriotza ziurtagiria aurkeztuz.	Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación del certificado de defunción.
5.6. Zerga kobratzeko datan alokatuta dauden etxebizitzak.	5.6. Las viviendas alquiladas a la fecha de devengo del impuesto.
Hasierako alokairu kontratua aurkeztu beharko da. Bertan adieraziko da eraikina etxebizitza erabilerarako lagatzen dela. Interesdunak ez daude behartuta jada administrazioaren esku dagoen errentamendu-kontratua aurkeztera. Hala ere, eskaeran kontratu horri erreferentzia egin beharko diote, data adierazita.	Se deberá presentar el contrato de alquiler inicial, en el que se determine que el inmueble se cede para uso de vivienda. Los interesados no estarán obligados a la presentación del contrato de arrendamiento que ya obre en poder de la Administración, no obstante en la solicitud deberán hacer referencia al citado contrato señalando la fecha del mismo.
Kontratua indarrean dagoela frogatzeko aurkeztu beharko da sortzapen-urteko urtarrileko edo ondorengo alokairuaren ordainagiria, ordaintzailea identifikatzen duena.	Como prueba de vigencia del contrato se deberá presentar el justificante de ingreso de alquiler correspondiente al mes de enero del año de devengo o posterior donde se identifique al pagador.
Alokairu kontratua 2016ko martxoaren 31tik aurrera sinatu den kasuetan (egun hori barne), dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:	En aquellos casos en que los contratos de alquiler se hayan suscrito con posterioridad al 31 de marzo de 2016 (incluida dicha fecha ) se deberá presentar:
Etxebizitzako Gipuzkoako lurralde ordezkartzan jarritako fidantzaren ordainagiriaren fotokopia.	Fotocopia de recibo de depósito de fianza presentado en la Delegación Territorial de Vivienda de Gipuzkoa.
Foru Aldundiari alokairu kontratuen berri emango zaie.	Se dará cuenta de los contratos de arrendamiento a la Hacienda Foral.
5.7. Gutxienez 183 egunetan alokatuta egon diren etxebizitzak, hain zuzen ere zerga kobratzeko aurre-aurreko urtean zehar.	5.7. Las viviendas que hayan estado alquiladas durante un período mínimo 183 días durante el año inmediatamente anterior al de devengo del impuesto.
Alokairu kontratua aurkeztu beharko da,	Se deberá presentar el contrato de alquiler, en



<p>adieraziz eraikina etxebizitza erabilerarako lagatzen dela. Interesdunak ez daude behartuta jada administrazioaren esku dagoen errentamendu-kontratua aurkeztera. Hala ere, eskaeran kontratu horri erreferentzia egin beharko diote, data adierazita.</p>	<p>el que se determine que el inmueble se cede para su uso de vivienda. Los interesados no estarán obligados a la presentación del contrato de arrendamiento que ya obre en poder de la Administración, no obstante en la solicitud deberán hacer referencia al citado contrato señalando la fecha del mismo.</p>
<p>Kontratuak indarrean dirauela frogatzeko, aurkeztu beharko dira adierazitako gutxieneko epealdiari (183 egun) dagozkion sarreren egiaztagiria. ordaintzailea nor den ere adieraziko da.</p>	<p>Como prueba de vigencia del contrato se deberán aportar los justificantes de ingreso del alquiler correspondientes al período mínimo indicado (183 días), donde se identifique al pagador.</p>
<p>Alokairu kontratua 2016ko martxoaren 31tik aurrera sinatu den kasuetan (egun hori barne), dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:</p>	<p>En aquellos casos en que los contratos de alquiler se hayan suscrito con posterioridad al 31 de marzo de 2016 (incluida dicha fecha ) se deberá presentar:</p>
<p>Etxebizitzako Gipuzkoako lurralde ordezkariaren jarritako fidantzaren ordainagiriaren fotokopia.</p>	<p>Fotocopia de recibo de depósito de fianza presentado en la Delegación Territorial de Vivienda de Gipuzkoa.</p>
<p>Foru Aldundiari alokairu kontratuen berri emango zaie.</p>	<p>Se dará cuenta de los contratos de arrendamiento a la Hacienda Foral.</p>
<p>5.8.- I, II eta III mailako mendetasuna duten pertsonen titularitateko etxebizitzak, 39/2006 Legearen arabera, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. Horrez gain, erroldaturik egon beharko dute profesionalak ez diren familia inguruko zaintzailekin.</p>	<p>5.8. Las viviendas cuya titularidad corresponde a personas dependientes (grado I, II y III) , de acuerdo con la clasificación establecida en “La ley 39/2006, de Promoción de la Autonomía Personal y atención a las personas en situación de dependencia” y estén empadronadas con cuidadoras/es no profesionales del entorno familiar.</p>
<p>Era berean, salbuespen hori aplikatuko zaie, (I, II eta III mailako) mendetasuna duten pertsonen zaintzaile ez profesionalen titularitateko etxebizitzari, pertsona horiek mendetasuna duen senitartekoaren etxebizitzara aldatu eta bertan erroldatu baldin badira.</p>	<p>Esta exención se aplicará también a las viviendas cuya titularidad corresponda a cuidadores no profesionales del entorno familiar de las personas dependientes (grado I, II y III) que se han trasladado y empadronado en el domicilio del familiar dependiente.</p>
<p>Bi egoera horietan aplikatuko zaio zaintzailearen edo mendekoaren ohiko etxebizitzari soilik.</p>	<p>En ambos casos se aplicará únicamente a la vivienda que tuviera la condición de vivienda habitual del cuidador o dependiente.</p>
<p>Organo eskudunak emandako mendetasunaren gaineko egiaztagiria eta bizikidetzaren egiaztagiria, udalerritik kanpo erroldatuta dauden kasuetan.</p>	<p>Se deberá presentar el certificado de dependencia emitido por el órgano competente y certificado de convivencia, en aquellos casos en que estén empadronados</p>

	fuera del municipio.
5.9. Hirugarren adineko pertsonen egoitzetan erroldatuta dauden pertsonen titularitateko etxebizitzak. Salbuespen hori soilik ezarriko zaio egoitzan sartu aurretik egoiliarak zuen ohiko etxebizitzari.	5.9. Las viviendas cuya titularidad corresponda a personas empadronadas en Residencias de la Tercera Edad. Esta exención se aplicará únicamente a la vivienda que, con carácter previo al ingreso en la Residencia, tuviera la condición de vivienda habitual del residente.
Egoera hau, egiaztatuko da errolda ziurtagiria aurkeztuz, udalerritik kanpo erroldatuta dauden kasuetan.	Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación del certificado de empadronamiento, en aquellos casos en que estén empadronados fuera del municipio.
Salbuespena gehenez ere hiru urtean ezarriko da egoitzan erroldatua egunetik kontatzen hasita.	La exención se aplicará durante un plazo máximo de tres años contados a partir de la fecha de empadronamiento en la residencia.
5.10. Ordenamendutik kanpo dauden etxebizitzak, hondamendi aitorpena izan dutenak edo hirigintza kudeaketari lotutakoak.	5.10. Las viviendas que estén fuera de ordenación, declarados en ruina o sujetos a gestión urbanística.
5.11. Higiezin merkatuan eskaintzan dauden etxebizitzak saldu edo alokatzeko, betiere:	5.11. Las viviendas que estén ofertadas en el mercado inmobiliario para su venta o arrendamiento, siempre que:
a) Salmenta prezioa ez bada katastroko balioa bider 1,9 koefizientea baino handiagoa.	a) Su precio de venta no supere el valor catastral multiplicado por el coeficiente 1,9.
b) Alokairuaren urtekoturiko prezioa ez bada etxebizitzaren "kastroko balioa bider 1,9 koefizientea" biderketan sorturiko balioaren % 4 baino handiagoa.	b) El precio del alquiler anualizado no supere el 4% del valor que resulte de multiplicar el valor catastral de la vivienda por el coeficiente 1,9.
Zirkunstantzia horiek egiaztatuko dira:	Estas circunstancias se acreditarán:
a) Higiezin bitartekaritza zerbitzuak erabiltzen direnean: saldu edo alokatzeko kontratuaren kopiaren bidez, alokairu edo salmenta prezioa zehaztuz.	a) Cuando se utilicen servicios de mediación inmobiliaria: mediante copia del correspondiente contrato para la venta o arrendamiento, señalando el precio de venta o alquiler.
b) Higiezin bitartekaritza zerbitzuak erabiltzen ez direnean aitortzen baten bidez, etxebizitza higiezin merkatuan jarri dela egiaztatzen duten frogatzeko baliabideen bidez (esate baterako, salmantan edo alokairuan dagoela erakusten duten argazkiak, web orrietan edo antzekoetan jarririko publizitatearen frogagiriak.	b) Cuando no se utilicen servicios de mediación inmobiliaria, mediante una declaración, acompañada de los medios de prueba que acrediten la puesta a disposición del mercado inmobiliario de la vivienda (como, por ejemplo, fotografías con carteles de venta o arrendamiento, justificantes de publicidad en páginas web, o similares).

Lorturiko datuekin, Udalak etxebizitza poltsa bat sortu ahalko du.	Con los datos obtenidos, el Ayuntamiento podrá crear una Bolsa de viviendas.
5.12. Gipuzkoatik kanpo, lan arrazoiak direla-eta beste udalerrri batera lekuz aldatu diren etxebizitzaren titularrek edo ezkontidea edo izatezko bikote.	5.12. Las viviendas cuyos titulares o su cónyuge o pareja de hecho se han trasladado a otro municipio fuera de Gipuzkoa por razones laborales.
Halako egoera egiaztatu beharko da jabeak egungo etxebizitzan duen errolda egiaztagiria aurkeztuz eta etxebizitzaren jabeak zerbitzuak ematen dituen enpresaren egiaztagiriaren bidez.	Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación del certificado de empadronamiento del propietario en su domicilio actual y certificado emitido por la empresa en la que el propietario de la vivienda presta sus servicios.
Izatezko bikote badira, dagokion Erregistroan izena emanda egon beharko dute.	En el caso de parejas de hecho deberán estar inscritas en el correspondiente Registro.
5.13. Konpontzen ari diren higiezinak zerga sortze datan.	5.13. Los inmuebles que estén siendo reformados en la fecha de devengo del impuesto.
Egoera hori egiaztatu beharko da obretarako udal lizentziarekin. Eskaeran obra lizentziaren data adierazi beharko da.	Esta circunstancia se acreditará mediante la licencia de obras municipal. En la solicitud deberá señalar la fecha de concesión de la licencia de obras.
5.14. Zerga sortu aurreko hiru hilabeteetan eta ondorengo bi hilabeteetan eskualdatutako etxebizitzak, betiere eskuratutako etxebizitza, eskualdaketa egunetik kontatzen hasita hiru hilabeteko epean, udal-erroldan inskribatua badago.	5.14. Las viviendas transmitidas los tres meses anteriores y dos posteriores al devengo del impuesto siempre que en la vivienda adquirida, en el plazo de tres meses a contar desde el día de la transmisión, figure inscripción en el Padrón Municipal
5.15. Bereizketa horizontalik ez duten eta erregistroan finka bakarria diren etxebizitzak, katastroan erreferentzia bakarria eta erreziho bakarria dutenak.	5.15 Las viviendas sin división horizontal que constituyan una única finca registral, con única referencia catastral y un único recibo.
5.16. Hutsik dauden baserriak.	5.16. Los caseríos que se encuentren vacíos.
Egiaztatuta geratuko da baserria ez dagoela hutsik nekazaritzako ustiapena Gipuzkoako Foru Aldundiaren nekazaritzako ustiapenen erregistroan inskribatuta badago edo egon bada.	Se considerara que esta circunstancia se acredita cuando la explotación agraria esté o haya estado inscrita en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
5.17. Zergan hobariren bat duten etxebizitzek.	5.17. Las viviendas que gocen de alguna bonificación tributaria en el impuesto.
Salbuespen honek hondar izaera du, eta	Esta exención tiene carácter residual y su

<p>helburua udalaz kanpoko arau baten babespean, legezkoa izanik, ondasun higiezinaren zergan hobari edo murrizketaren bat duten etxebizitzetara zerga-kenketa ahalbidetzea da, hain zuzen ezaugarri bereziak dituelako edo jabeek egoera pertsonal berezia bizi dutelako.</p>	<p>objeto es permitir la exención de aquellas viviendas que gocen de algún tipo de bonificación o reducción en el impuesto de bienes inmuebles al amparo de alguna norma extramunicipal pero legalmente aplicable, bien por su características singulares o bien por causa de las situaciones personales de la propiedad.</p>
<p>5.18. Aldi baterako bizileku gisa erabiltzen diren etxebizitzak. Salbuespen hau etxebizitza bakar bati aplikatuko zaio, titularra Gipuzkoatik kanpo bizi bada.</p>	<p>5.18. Las viviendas destinadas a residencia temporal . Esta exención se aplicará a una sola vivienda y cuando el titular resida fuera de Gipuzkoa.</p>
<p>Joko da etxebizitza aldi baterako bizileku gisa erabiltzen dela egiaztatzen bada gutxienez 150 KWh elektrizitate edo 300KWh gas natural kontsumitzen direla zerga sortu aurre-urreko urteko edozein hilabetetan.</p>	<p>Se entenderá que la vivienda se destina a residencia temporal cuando se acredite un consumo mínimo de electricidad de 150 KWh o de gas natural de 300KWh en cualquiera de los meses del año inmediatamente anterior al de la fecha de devengo del impuesto.</p>
<p>Hori egiaztatzeko, aurkeztu beharko dira elektrizitate fakturak eta etxebizitzaren titularraren errolda-ziurtagiria.</p>	<p>Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación de las facturas de electricidad del período y el certificado de empadronamiento del titular de la vivienda.</p>
<p>5.19. Hipersentsibilitate elektromagnetikoa duten pertsonen aldi baterako egoitza izango diren etxebizitzak, egoera horren ondoriozko sintomak arintzearen.</p>	<p>5.19. Las viviendas destinadas a residencia temporal de personas con hipersensibilidad electromagnética, con el fin de paliar la sintomatología derivada de dicha circunstancia.</p>
<p>Egoera hori egiaztatzeko dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:</p>	<p>Ello se acreditará mediante la aportación de los siguientes documentos:</p>
<p>a) Patologia egiaztatzen duen dokumentazio medikoa.</p>	<p>a) Documentación médica acreditativa de la existencia de la patología.</p>
<p>b) Erabiltzailearen erantzukizunpeko adierazpena, berariaz adierazteko etxebizitza horren ezaugarriak (kokapenagatik edo bestelako arrazoiengatik) egokiak zaizkiola, bere sintomak desagerrarazi edo arintzen dizkiola eta etxebizitza doan lagatzen zaiola.”</p>	<p>b) Declaración responsable de la persona usuaria en la que conste expresamente que las características de dicha vivienda (por ubicación u otros motivos) le son favorables, pues evitan o disminuyen los síntomas que padece, así como que le es cedida gratuitamente.”</p>
<p>Salbuespen hori aplikatuko zaio etxebizitza bakar bati.</p>	<p>Esta exención únicamente se aplicara a una vivienda.</p>
<p><u>7. artikulua</u></p>	<p><u>Artículo 7.-</u></p>
<p>Inor erroldatuta ez duten etxebizitzak</p>	<p>Las viviendas en las que no haya ninguna</p>

<p>gainkargua duten etxebizitzan zerrandan sartuko dira. Egoera horretan mantenduko dira norbait erroldatzen den arte. Zerga eta gainkarga batera igorriko dira.</p>	<p>persona empadronada serán incorporadas al listado de viviendas sujetas a recargo. Dicha situación se mantendrá mientras no haya nadie empadronado en ellas. Se procederá al giro conjunto del impuesto y su recargo.</p>																				
<p>Jabeei behin jakinarazi zaienean etxebizitza zerrenda horretan sartu dela, hurrengo urteetan ez zaie berriz jakinaraziko, eta beren ardura izango da garaiz jakinaraztea gainkarga egoki ez izatea eragiten duen edozein egoera. (salbuespen eskaera edo ohiko bizileku gisa erabiltzearen froga)</p>	<p>En aquellos casos en que se haya notificado a las personas propietarias la inclusión en dicha lista no se realizará nueva notificación durante los años posteriores, por lo que será responsabilidad de las personas propietarias comunicar a tiempo cualquier circunstancia (solicitud de exención o acreditación de prueba de residencia habitual) por la que se considere que no procede el recargo.</p>																				
<p>--</p>	<p>--</p>																				
<p>--</p>	<p>--</p>																				
<p><b>1.01.7.- ERANSKINA</b></p>	<p><b>1.01.7.- ANEXO</b></p>																				
<p>- Zerga-motak. Kuotak zehazteko karga mota hauek ezarri dira:</p>	<p>- Tipos impositivos. Para determinar las cuotas se fijan los siguientes tipos de gravamen:</p>																				
<table border="1"> <tr> <td data-bbox="304 1126 730 1261">1.1.- Hiri ondasunen gainekoa:</td> <td data-bbox="730 1126 847 1261">-</td> <td data-bbox="847 1126 938 1261"></td> <td data-bbox="938 1126 1364 1261">1.1.- De Naturaleza urbana:</td> </tr> <tr> <td data-bbox="304 1261 730 1395">A) Lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoa</td> <td data-bbox="730 1261 847 1395">0,500</td> <td data-bbox="847 1261 938 1395">%</td> <td data-bbox="938 1261 1364 1395">A) Suelo industrial o terciario</td> </tr> <tr> <td data-bbox="304 1395 730 1529">B) Gainontzeko hiri ondasunak</td> <td data-bbox="730 1395 847 1529">0,236 5</td> <td data-bbox="847 1395 938 1529">%</td> <td data-bbox="938 1395 1364 1529">B) Resto bienes urbanos</td> </tr> <tr> <td data-bbox="304 1529 730 1664">1.2.- Landa ondasunen gainekoa</td> <td data-bbox="730 1529 847 1664">1,1</td> <td data-bbox="847 1529 938 1664">%</td> <td data-bbox="938 1529 1364 1664">1.2.- De naturaleza rústica</td> </tr> <tr> <td data-bbox="304 1664 730 1787">2.- Gainkarga, zergaren kuota likidoaren gainean</td> <td data-bbox="730 1664 847 1787">100</td> <td data-bbox="847 1664 938 1787">%</td> <td data-bbox="938 1664 1364 1787">2.- Recargo sobre la cuota líquida</td> </tr> </table>	1.1.- Hiri ondasunen gainekoa:	-		1.1.- De Naturaleza urbana:	A) Lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoa	0,500	%	A) Suelo industrial o terciario	B) Gainontzeko hiri ondasunak	0,236 5	%	B) Resto bienes urbanos	1.2.- Landa ondasunen gainekoa	1,1	%	1.2.- De naturaleza rústica	2.- Gainkarga, zergaren kuota likidoaren gainean	100	%	2.- Recargo sobre la cuota líquida	
1.1.- Hiri ondasunen gainekoa:	-		1.1.- De Naturaleza urbana:																		
A) Lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoa	0,500	%	A) Suelo industrial o terciario																		
B) Gainontzeko hiri ondasunak	0,236 5	%	B) Resto bienes urbanos																		
1.2.- Landa ondasunen gainekoa	1,1	%	1.2.- De naturaleza rústica																		
2.- Gainkarga, zergaren kuota likidoaren gainean	100	%	2.- Recargo sobre la cuota líquida																		

<p><b>1.02.-ZERGA: UDALERRIKO IHARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN</b></p>	<p><b>1.02.-IMPUESTO: ORDENANZA FISCAL REGULADORA PARA DETERMINADAS</b></p>
--	---

<p><b>ORDAINARAZPENERAKKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.</b></p>	<p><b>FACULTADES PARA LA EXACCION DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONOMICAS EN EL MUNICIPIO.</b></p>
<p>1.02.-.- -- --</p>	<p>1.02.-.- -- --</p>
<p><b>1. ERANSKINA</b> Gutxieneko kuoten igoera bakararra: %2'2koa.</p>	<p><b>ANEXO 1</b> Coeficiente único de incremento de las cuotas mínimas fijadas: 2'2%</p>
<p><b>2. ERANSKINA</b> <b>UDAL MUGARTEKO BIDE PUBLIKOEN SAILKAPENA:</b> Kategoriak-Indizea-Kodea-Kaleak, plazak edo auzoak</p>	<p><b>ANEXO 2</b> <b>CLASIFICACION DE LAS VIAS PUBLICAS DEL TERMINO MUNICIPAL:</b> Categorías-Índice-Código-Calles, plazas o barrios.</p>
<p>LEHENENGOA 1  BIGARRENA 1  GAINERAKO BIDEAK 1</p>	<p>PRIMERA 1  SEGUNDA 1  RESTO DE VIAS 1</p>
<p><b>3. ERANSKINA</b> Ponderazio koefizientea Zergaren Tarifetan ezarritako kuota minimoak igo egingo dira, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateginaren 11. artikuluan jasotako taula aplikatuz, uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauan idatzita dagoenaren barruan, zeinaren bidez aldaketa jakin batzuk sartzen diren tokiko zerga-ordainketa</p>	<p><b>ANEXO 3</b> Coeficiente de ponderación Se incrementan las cuotas mínimas, fijadas en las Tarifas del Impuesto, mediante la aplicación de la tabla recogida en el Art. 11 deL Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, en la redacción dada por la Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, por la que se introducen determinadas modificaciones en la tributación local.</p>
<p><b>1.02.1.- XEDAPEN OROKORRAK.</b></p> <p><u>1. Artikulua.</u></p> <p>Udal honek apirilaren 20ko 1/993 Foru Dekretuan, 11 eta 12 artikuluek emandako eskumenez baliatuta, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bategina onesten duena, Ordenantza honetan jasotzen diren koefiziente eta indizeak ezarri ditu.</p>	<p><b>1.02.1.- DISPOSICIONES GENERALES.</b></p> <p><u>Artículo 1.</u></p> <p>Este Ayuntamiento, haciendo uso de las facultades previstas en los arts. 11 y 12 del Decreto Foral Normativo 1/1993. De 20 de abril, por el que se aprueba el texto refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, fija los coeficientes e índices contenidos en esta Ordenanza Fiscal.</p>

<p><b>1.02.2.- GUTXIENEZKO KUOTEN PONDERAZIOA.</b></p> <p><u>2. Artikulua.</u> Udalerri honetan zergapetutako ihardueretarako zerga honen tarifetan Foru Aldundiak ezarri dituen gutxienezko kuotak 1. ERANSKINEAN azaltzen den koefizientearen arabera gehituko dira.</p>	<p><b>1.02.2.- PONDERACION DE CUOTAS MINIMAS.</b></p> <p><u>Artículo 2.</u> Las cuotas mínimas fijadas por la Diputación Foral en las Tarifas de este Impuesto para las actividades gravadas en este término municipal se incrementarán en al coeficiente que se indica en el ANEXO 1.</p>
<p><u>3. Artikulua.</u></p> <p>Udalerriaren barnean Zerga honek zergapetutako iharduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, aurreko 2. Artikuluaren arabera gehitutako kuotei 2. ERASKINEAN adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontuan hartuz.</p>	<p><u>Artículo 3.</u></p> <p>A efectos de ponderar la situación física de los locales o establecimientos donde se ejerzan las actividades gravadas por este Impuesto en el término municipal, se aplicará a las cuotas incrementadas conforme al artículo 2 anterior los índices de la escala que se indican en el ANEXO 2 en función de la categoría de la vía pública.</p>
<p><u>4. Artikulua.</u></p> <p>Gehikuntza koefizientea eta kokapen indizea, Ordenantza honen 2 eta 3. artikuluetan hurrenez hurren finkatzen direnak, ez zaizkie aplikatuko kuota probintzialesi eta bereziei, ez eta Foru Errekarguari ere.</p>	<p><u>Artículo 4.</u></p> <p>El coeficiente de incremento y el índice de situación fijados respectivamente en los artículos 2 y 3 de esta Ordenanza no se aplicarán a las cuotas provinciales y especiales ni al Recargo Foral.</p>
<p><u>5. Artikulua.</u></p> <p>Aipatutako 3. artikuluan adierazitako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egiten dira, 2. ERASKINEAN zerrendatutako kategorien ordenaren arabera hain zuzen ere.</p>	<p><u>Artículo 5.</u></p> <p>Para la aplicación de los índices que hace referencia el artículo 3 anterior se clasifican las calles, plazas o barrios del término municipal por el orden de categorías que se relacionan en el ANEXO 2.</p>
<p><b>1.02.3.- TRIBUTU KUOTA.</b></p> <p><u>6. Artikulua.</u></p> <p>Zerga honen tributu kuota Tarifek finkatzen dituzten gutxienezko kuotek osatuko dute, berauei koefizientea eta Ordenantza honetako 2 eta 3. artikuluen eta, hala badagokio, Foru</p>	<p><b>1.02.3.- CUOTA TRIBUTARIA.</b></p> <p><u>Artículo 6.</u></p> <p>La cuota tributaria de este Impuesto estará formada por las cuotas mínimas que fijen las Tarifas, incrementadas con el coeficiente y el índice que proceda según los artículos 2 y 3</p>

<p>Errekarguaren arabera dagokion indizea gehituz.</p>	<p>de esta Ordenanza y del Recargo Foral en su caso.</p>
<p><b>1.02.4.- KUDEAKETA ARAUAK.</b></p> <p><u>7. Artikulua.</u> 1.- Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapen ahalmenak Gipuzkoako Foru Aldundiarengan eskuordetu ahal izango dira, Udal Batzarreak alde zuzenetik erabakitako eran, edukiarekin eta neurrian, eta horretarako hitzarmena sinatuz ondorioak izan behar ditueneko urtearen hasiera baino lehen. 2.- Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen sei hilabetearen barruan. Era berean, aldizkari ofizial horretan bertan argitaratuko da hitzarmen horien salaketa. 3.- Artikulu honetako lehen zenbakian erabakitakoa horrela bada ere, kasu orotan Foru Aldundiarenak izango dira han adierazitako ahalmenak, kuota probintzial eta bereziei dagokienez.</p>	<p><b>1.02.4.- NORMAS DE GESTIÓN.</b></p> <p><u>Artículo 7.</u> 1.- Las facultades de gestión, liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto podrán delegarse en la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los términos, contenido y alcance que el Ayuntamiento Pleno determine, suscribiendo al efecto el oportuno convenio antes del comienzo del año en que haya de surtir efectos. 2.- Tales acuerdos y convenios se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa dentro del primer semestre siguiente a su formalización. Así mismo se publicará en el mismo medio oficial la denuncia de los citados convenios. 3.- No obstante lo dispuesto en el número 1 de este artículo corresponderá en todo caso a la Diputación Foral las Facultades en él expresadas por lo que se refiere a las cuotas provinciales y especiales.</p>
<p><b>1.02.5.- HOBARIAK.</b></p>	<p><b>1.02.5.- BONIFICACIONES.</b></p>
<p>- Hobariak</p>	<p>- Bonificaciones</p>



<p>1.- Enplegua sortzen dutenek izango dituzte, baldin eta udal zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboek hobaria aplikatu aurreko zergaldian behinbetiko kontratuarekin langile-plantillaren batz bestekoa igo badute. Horrela, ondorengo hobariak egingo dira:</p>	-		<p>1.- Por creación de empleo para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y que hayan incrementado el promedio de su plantilla de trabajadores con contrato indefinido durante el período impositivo inmediato anterior al de la aplicación de la bonificación.</p>
<p>a) % 10eko hobaria egingo zaie kontratu finkoarekin langileen batz-besteko portzentajea % 5 igo duten enpresei.</p>	-		<p>a) Bonificación del 10% a las empresas que hayan incrementado el promedio de trabajadores con contrato fijo en un 5%.</p>
<p>b) % 20eko hobaria egingo zaie kontratu finkoarekin langileen batz-besteko portzentajea % 10 igo duten enpresei.</p>	-		<p>b) Bonificación del 20% a las empresas que hayan incrementado el promedio de trabajadores con contrato fijo en un 10%.</p>
<p>c) % 40ko hobaria egingo zaie kontratu finkoarekin langileen batz-besteko portzentajea % 20 igo duten enpresei.</p>	-		<p>c) Bonificación del 40% a las empresas que hayan incrementado el promedio de sus trabajadores con contrato fijo en un 20%.</p>
<p>2.- Kuotaren % 50, 2/1997 Foru Arauaren 5. artikulua eta kidekoek apaigai dituzten bereziki babesturiko kooperatibei, hots, lehenengo maila duten ondokoei: Elkarlaneko kooperatibei, Nekazalekoei, erkidegoan ustiatzekoei, irakaskintzakoei eta etxebizitzenei eta eraldatzeko nekazaritza elkarteei.</p>	-		<p>2.- Del 50% de la cuota, a las Cooperativas Especialmente Protegidas de primer grado a que se refieren los artículos 5 y concordantes de la Norma Foral 2/1997, esto es Cooperativas de Trabajo Asociado, Agrarias, de Explotación Comunitaria, de Enseñanza y de Vivienda y las Sociedades Agrarias de Transformación.</p>
<p>3.- Kuotaren %25 eko hobaria udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldintza hauek betetzen dituztenean</p>	-		<p>3.- Del 25% de la cuota correspondiente para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y que:</p>

<p>1) Energia erabili edo ekoiztea energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioetatik edo kogenerazio sistemetatik abiatuta.</p>	-		<p>1) Utilicen o produzcan energía a partir de instalaciones para el aprovechamiento de energías renovables o sistemas de cogeneración.</p>
<p>Ondorio horietarako, energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak Energia Berriztagarriak Sustatzeko Planean jaso eta halakotzat definitzen direnak dira. Kogenerazio sistemak, elektrizitatea eta energia termiko erabilgarria aldi berean ekoizteko balio duten ekipo edo instalazioak dira.</p>	-		<p>A estos efectos, se considerarán instalaciones para el aprovechamiento de las energías renovables las contempladas y definidas como tales en el Plan de Fomento de las Energías Renovables. Se considerarán sistemas de cogeneración los equipos e instalaciones que permitan la producción conjunta de electricidad y energía térmica útil.</p>
<p>2) Langileei zuzendutako garraio plan bat ezartzea lanpostura joateak dakarren energia kontsumoa eta sortutako isuriak murrizteko, eta garraiobiderik eraginkorrenen erabilpena, garraio publikoarena edo partekatua, sustatzeko.</p>	-		<p>2) Establezcan un plan de transporte para sus trabajadores que tenga por objeto reducir el consumo de energía y las emisiones causadas por el desplazamiento al lugar del puesto de trabajo y fomentar el empleo de los medios de transporte más eficientes, como el transporte colectivo o el compartido.</p>
<p>Hobari hauek zergadunak eskatu behar ditu eta eskatu ondorengo hurrengo epean sartuko dira indarrean, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alde arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera egiten direnak izan ezik.</p>	-		<p>Dichas bonificaciones tienen carácter rogado y entraran en vigor a partir del período siguiente a su solicitud, salvo aquéllas que se realicen de acuerdo con lo establecido en el artículo 11 del Decreto Foral 80/1991, de 19 de noviembre, por el que se regulan determinados aspectos en relación a la gestión del Impuesto sobre Actividades Económicas.</p>

<p><b>1.03.-ZERGA: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.</b></p>	<p><b>1.03.-IMPUESTO: ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCION MECANICA.</b></p>
<p>1.03.-.- -- --</p>	<p>1.03.-.- -- --</p>
<p><b>1.03.1.- XEDAPEN OROKORRAK.</b></p> <p><u>1. Artikulua.</u></p> <p>Udal honek, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauko 4.4. artikulua ematen dion zilegadura erabiliz, udal zergak ordaintzeko sistema berrituan martxoaren 19ko 4/2003 foru arauaren arabera aldatua, artikulua horretako 1. atalean ezarritako gutxienezko kuota finkatzen ditu ERASKINEAN adierazten den koefizientea aplikatuz.</p>	<p><b>1.03.1.- DISPOSICIONES GENERALES.</b></p> <p><u>Artículo 1.</u></p> <p>Este Ayuntamiento, haciendo uso de la autorización que confiere el art. 4.4. de la Norma Foral 14/1.989, de 5 de Julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, modificada mediante Norma Foral 4/2003, de 19 de marzo, de reforma del Sistema de tributación local fija las cuotas mínimas establecidas en el apartado 1 del citado artículo mediante la aplicación del coeficiente que se expresa en el ANEXO.</p>
<p><b>1.03.2.- ZERGA KUOTA.</b></p> <p><u>2. Artikulua.</u></p> <p>Aurreko artikulua aipatzen duen koefizientea aplikatuz, Zerga hau adierazitako Eranskinean zerrendatutako tarifa-taularen arabera exijituko da.</p>	<p><b>1.03.2.- CUOTA TRIBUTARIA.</b></p> <p><u>Artículo 2.</u></p> <p>En aplicación del coeficiente a que se refiere el artículo anterior, este Impuesto se exigirá con arreglo al cuadro de tarifas que se relaciona en el expresado Anexo.</p>
<p><b>1.03.3.- ZERGAREN KUDEAKETA.</b></p> <p><u>3. Artikulua.</u></p> <p>1. Zerga hau autoliquidazio erregimenean exigituko da, horretarako udal administrazioak Zerga honen subjektu pasiboak eta dagozkien</p>	<p><b>1.03.3.- GESTION DEL IMPUESTO.</b></p> <p><u>Artículo 3.</u></p> <p>1. Este Impuesto se exigirá en régimen de autoliquidación en el modelo que al efecto se facilitará por la administración municipal a los</p>

<p>espedienteak tramitatzen dituzten Gestoriei emango dien ereduak.</p> <p>2. Zergaren ordainketa autolikidazioa aurkeztuko den unean egingo da.</p>	<p>sujetos pasivos de este Impuesto y a las Gestorías que tramiten los correspondientes expedientes.</p> <p>2. El pago del Impuesto se efectuará en el momento de la presentación de la autoliquidación.</p>
<p><u>4. Artikulua.</u></p> <p>Zerga hau ordaindu dela egiaztatuko duen dokumentua zorra kitatzeko unean udal Administrazioak emango duen behin-betiko ordainagiria izango da.</p>	<p><u>Artículo 4.</u> El documento acreditativo del pago de este Impuesto, será el recibo definitivo que expida la Administración municipal en el momento de liberar la deuda.</p>
<p><u>5. Artikulua.</u> 1. Zerga honen zorraren ordainketa eguneratuta daukala egiaztatuko duen ziurtagiriaren aurkezpena ezinbesteko baldintza izango da ondorengo espedienteak tramitzeko eskaerari Trafiko Buruzagitzan hasiera emateko:</p>	<p><u>Artículo 5.</u> 1. La presentación del certificado acreditativo de estar al corriente del pago de la deuda tributaria de este Impuesto, es requisito indispensable para iniciar en la Jefatura de Tráfico la solicitud de tramitación de los expedientes sobre:</p>
<p>a) Zirkulatzeko ibilgailuaren gaitasun ziurtapenarena.</p> <p>b) Ibilgailuaren behin-betiko baxarena.</p> <p>c) Ibilgailuen erreformarena, Zerga honen ondorioetarako haien sailkapena aldatzen denean.</p> <p>d) Ibilgailuaren transferentziarena.</p> <p>e) Ibilgailuaren zirkulazio baimenean azaltzen den subjektu pasiboaren bizileku aldaketarena.</p>	<p>a) La certificación de aptitud del vehículo para circular.</p> <p>b) La baja definitiva del vehículo.</p> <p>c) La reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación o efectos de este Impuesto.</p> <p>d) La transferencia del vehículo.</p> <p>e) El cambio de domicilio del sujeto pasivo del que figure en el permiso de circulación del vehículo.</p>
<p>2. Kuota korronteen ordainketa egiaztatuko duen ordainagiriaren aurkezpena ezinbesteko betebeharra izango da, hori aurkeztea eskatzen duten Zergapeko ibilgailuen matrikulazio espedienteari hasiera emateko Trafiko Buruzagitzan.</p>	<p>2. La presentación del recibo acreditativo del pago de las cuotas corrientes, será requisito indispensable para iniciar el expediente de matriculación en la Jefatura de Tráfico de los vehículos sujetos al Impuesto que requieran tal requisito.</p>
<p><b>1.03.4.- KUOTEN ITZULKETA.</b></p> <p><u>6. Artikulua.</u></p> <p>Zergadunari bere aldeko kuota proportzionala itzuliko zaio, bai ibilgailuari baja eman edota behin-behineko likidazioan gerakin geratutakoa. Zenbatekoa zergadunak duen</p>	<p><b>1.03.4.- DEVOLUCION DE CUOTAS.</b></p> <p><u>Artículo 6.</u></p> <p>Las cuotas proporcionales que resulten a favor del sujeto pasivo, en el supuesto de baja del vehículo, así como los excesos abonados en su caso en la liquidación provisional, serán</p>

<p>kontuan sartuko da, diru hori itzultzeko eskaera orria bete beharko da eta honekin batera behin-betiko bajari eta ibilgailuaren matrikulazioari dagokion agiria aurkeztu beharko da.</p>	<p>devueltos a los sujetos pasivos del impuesto mediante ingreso en cuenta bancaria, una vez se haya cumplimentado el impreso establecido a tal efecto y se aporte la documentación relativa a la baja definitiva y a la matriculación del vehículo.</p>
<p><b>1.03.5.- HOBARIA.</b></p>	<p><b>1.03.5.- BONIFICACIONES.</b></p>
<p>- - Hobariak</p>	<p>- - Bonificaciones</p>
2.- En las tasas establecidas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial por entradas de vehículos o carruajes a través de las aceras y por su construcción, mantenimiento, modificación o supresión, tendrán la consideración de sustitutos del contribuyente, los propietario/as de las fincas y locales a que den acceso dichas entradas de vehículos, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiario/as.

3.- El Estado, las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales no estarán obligados al pago de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público por los aprovechamientos inherentes a los servicios públicos de comunicaciones que exploten directamente y por todos los que inmediatamente interesen a la seguridad ciudadana o a la defensa nacional.

### Artículo 5.

Las tasas se harán efectivas por aquellos a cuyo favor se otorguen las licencias correspondientes o, en su defecto, por quienes se beneficien del aprovechamiento.



#### IV.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK.

##### 6. Artikulua.

Salbuespenak edo beste zerga-onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeak, alderdi politikooak, talde politikoak, sindikatuak eta antzeko erakundeak lurzorua, zorupearen eta bide publikoko hegala erabilera pribatiboari edo aprobetxamenduari dagokion tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira (2.1.3 epigrafeko 2.2.1 artikulua salbuetsita).

Era berean, %100eko hobaria jaso ahal izango dute erabilera publikoko lurzorua, lurrazpiaren edo hegala erabilera berezia edo aprobetxamendua egiteagatik, ordaindu beharreko tasan udalerriko baserrietako baratzeak edo fruitak saltzen dituzten postuak eta Xabier Olaskoaga plazan kokatuak.

Aipaturiko hobaria eskatu egin behar da.

#### V.- OINARRI EZARGARRIA.

##### 7. Artikulua.

Oinarri ezargarrira udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

#### VI.- KUOTA.

##### 8. Artikulua.

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.- Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa alde aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak

#### IV.- EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES.

##### Artículo 6.

La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

Las entidades sin ánimo de lucro, partidos políticos, agrupaciones políticas, sindicatos y entidades análogas estarán exentas del pago de la tasa por utilización privativa o aprovechamiento del suelo, subsuelo o vuelo de la vía pública (excepto artículos 2.2.1. del epígrafe 2.1.3).

Asimismo podrán acceder a una bonificación del 100% en la tasa por utilización privativa o aprovechamiento del suelo, subsuelo o vuelo de uso público los puestos de venta de productos hortofrutícolas producidos en caseríos del municipio y situados en la plaza Xabier Olaskoaga.

Dicha bonificación tiene carácter rogado.

#### V.- BASE IMPONIBLE.

##### Artículo 7.

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, en los términos contenidos en el Anexo.

#### VI.- CUOTA.

##### Artículo 8.

1.- La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el Anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

2.- Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiere lugar, estará obligado al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al

kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

## VII.- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA.

### 9. Artikulua.

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidatuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkako izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinen ezarritakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

## VIII.- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA.

### 10. Artikulua.

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

## IX.- TASEN KUDEAKETA.

depósito previo de su importe.

Si los daños fueran irreparables, la Entidad Local será indemnizada en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.

La Entidad Local no podrá condonar total ni parcialmente las indemnizaciones y reintegros a que se refiere el presente apartado.

## VII.- DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO.

### Artículo 9.

1.- La tasa por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local se devengará, según la naturaleza de su hecho imponible, cuando se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial, pudiendo exigirse el depósito previo de su importe total o parcial, o cuando se presente la solicitud que inicie la actuación o el expediente, que no se realizará o tramitará sin que se haya efectuado el pago correspondiente.

2.- Cuando la naturaleza material de la tasa exija el devengo periódico de ésta, el mismo tendrá lugar el 1 de enero de cada año y el período impositivo comprenderá el año natural, salvo en los supuestos de inicio o cese en la utilización privativa o el aprovechamiento especial, en cuyo caso el período impositivo se ajustará a esa circunstancia con el consiguiente prorrateo en la cuota, en los términos establecidos en el Anexo.

3.- Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

## VIII.- LIQUIDACION E INGRESO.

### Artículo 10.

Por la Entidad Local se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose en metálico la cantidad liquidada, conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

## IX.-GESTION DE LAS TASAS.

## 11. Artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

### X.- AMAIERAKO XEDAPENA.

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 1999ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

Eraskinak ondorengoak direlarik:

## Artículo 11.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

### X.- DISPOSICION FINAL.

La presente Ordenanza, con su Anexo, fue aprobada definitivamente en la fecha que en éste se indica, entrará en vigor el 1 de enero de 1.999 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

Siendo sus anexos los siguientes:

## **2.01.-TASA: ESPALOITIK ETA BIDE PUBLIKOAREN ERRESERBA EGINEZ IBILGAILUEN SARRERA GORDETZEA.**

### **2.01.1.- 1. Artikulua**

Tarifa hauek aplikatuko dira:

1 - Ibi erreserbako metro lineal edo frakzio bakoitzeko:

## **2.01.-TASA: ENTRADA DE VEHÍCULOS A TRAVÉS DE ACERAS Y RESERVAS DE VÍA PÚBLICA.**

### **2.01.1.- Artículo 1**

Las tarifas a aplicar serán las siguientes:

1 - Por cada metro lineal o fracción de reserva de paso:

Jarduera ekonomikoko lokalera	204,86	€	A locales para actividad económica
Garaje erabilera duten lokaletara	69,73	€	A locales de garaje de uso
Industrialdeetako lokaletara	17,29	€	A locales en zona industrial
2 - Ibi erreserba gabeko metro lineal edo frakzio bakoitzeko:		2 - Por cada metro lineal o fracción sin reserva de paso:	
Jarduera ekonomikoko lokalera	68,39	€	A locales para actividad económica
Garaje erabilera duten lokaletara	14,27	€	A locales de garaje de uso
3 - Karga eta deskargarako espazio erreserba metro lineal bakoitzeko		3 - Por cada metro lineal reserva de espacio para carga y descarga	
metro lineal bakoitzeko	68,39	€	Por cada metro lineal
Erabiltzen diren lokalak direnean, 1 eta 2 epigrafeetan ezarritako kuotaz gainera hiru garaje-plaza baino gehiago duen bakoitzeko:	-		Tratándose de locales de uso, además de la cuota establecida en los epígrafes 1 y 2 deberán abonar por cada plaza de garaje que exceda de tres:
a) Ibi erreserba badu	14,27	€	a) Si tiene reserva de paso
b) Ibi erreserbarik ez badu	3,54	€	b) Si no tiene reserva de paso
4 - Plaka ofiziala		4 - Placa oficial	
Jartzeko garaian edo titularrak aldatu nahi duen aldiro.	25,60	€	En el momento del suministro o cada vez que el titular desee cambiarla.
<b>2.01.2.- 2. Artikulua</b>		<b>2.01.2.- Artículo 2</b>	

<p>Aipatu tasa kobratuko da eroldaren bidez urteko errezibo bakar baten bitartez, baimena ematen denean izan ezik, orduan zuzenean likidatuko baita. Gainera, kuota okupazio hasieratik eta abenduaren 31 arte dauden hiruhilabeteko kopuruaren arabera (zatiketa inola ere zaie aplikatuko titularitate-aldaketa eta bajei).</p>	<p>El cobro de dicha tasa se hará en un único recibo anual mediante padrón, excepto el año de autorización que se hará mediante liquidación directa y la cuota será proporcional al número de trimestres existentes entre la fecha de comienzo de la ocupación y el 31 de Diciembre (el fraccionamiento en ningún caso se hará extensivo a los cambios de titularidad y a las bajas).</p>
---	---

<p><b>2.02.-TASA: UDAL TOKI PUBLIKOKO LURZORU, HEGALKIN ETA LURRAZPIAREN ERABILPEN PRIBATUA EDO APARTEKO PROBETXAMENDUA EGITEA.</b></p>	<p><b>2.02.-TASA: UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO, VUELO Y SUBSUELO DE LA VÍA PÚBLICA MUNICIPAL, EN FAVOR DE EMPRESAS EXPLOTADORAS DE SERVICIOS DE SUMINISTRO.</b></p>
<p>Tasak finkatzen badira hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera pribatu edo aprobetxamendu bereziak egiteagatik, eta hornidura-zerbitzu horiek interes orokorrekoak badira edo auzotar guztiei edo horien zati handi bati eragiten badiete, haien zenbatekoa aipatutako enpresek udalerrri bakoitzaren urtean lortzen duten fakturaziotik eratorritako sarrera gordinen <b>%1,50</b>ekoa izango da.</p> <p>Ondorio horietarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.</p> <p>Telefonia mugikorreko zerbitzuek ez dira tasa kuantifikatzeko erregimen berezi honetan sartuko.</p> <p>Kuantifikaziorako erregimen berezi hau aplikagarria izango zaie aurretik erreparaturiko enpresei, bai hornidurak egiteko erabiltzen diren sareen titularrak direnean, eta bai, horien titularrak ez izanik ere, sareak erabili, horietan sartu edo haiekin interkonektatzeko</p>	<p>Cuando se trate de tasas por utilización privativa o aprovechamientos especiales constituidos en el suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, a favor de empresas explotadoras de servicios de suministros que resulten de interés general o afecten a la generalidad o a una parte importante del vecindario, el importe de aquéllas consistirá en un porcentaje del <b>1,50%</b> de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan anualmente en cada término municipal las referidas empresas.</p> <p>A estos efectos, se incluirán entre las empresas explotadoras de dichos servicios las empresas distribuidoras y comercializadoras de los mismos.</p> <p>No se incluirán en este régimen especial de cuantificación de la tasa los servicios de telefonía móvil.</p> <p>Este régimen especial de cuantificación se aplicará a las empresas anteriormente indicadas, tanto si son titulares de las correspondientes redes a través de las cuales se efectúan los suministros como si, no siendo titulares de dichas redes, lo son de derechos</p>

eskubideen jabe direnean.

Ordenantza honetan xedatutakoaren ondorioetarako, fakturaziotik eratorritako sarrera gordinak hauek direla joko da, alegia, entitate bakoitzari egozgarriak izanik, entitateak udalerrri bakoitzean egindako zerbitzuengatik kontraprestazio gisa lortutakoak.

Ondorio hauetarako, egindako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak ez dira sarrera gordinen artean sartuko, ezta ere hirugarren batzuen kontura kobratutako partida edo kopuruak tasa kuantifikatzeko erregimen berezi hau aplikagarri duen entitatearen berezko sarrerak ez badira.

Hornidurak egitean inoren sareak erabiltzen dituzten enpresek kopuru hauek kenduko dituzte beren fakturazioaren sarrera gordinetatik, hain zuzen, sare horietara sartzeagatik edo haiekin interkonektatzeagatik beste enpresei ordaindutako kopuruak. Sare horien enpresa titularrek beren fakturazioaren sarrera gordinen artean konputatu beharko dituzte kontzeptu horretatik jasotako kopuruak.

kontzeptu horretatik jasotako kopuruak. Erregimen berezi hau aplikatuzetik ateratzen den zenbatekoa ezingo zaie ordenantza honetan aipatzen diren hornidura zerbitzuen erabiltzaileei jasanarazi.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak bateragarriak dira udal eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik finkatu daitezkeen bestelako tasekin, baldin eta ordenantza honetan aipatzen diren enpresak haien subjektu pasibo badira foru arau honek 23.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Alabaina, udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran eratutako erabilera pribatu edo aprobetxamendu berezitik erator litezkeen bestelako tasen ordainarazpena ez da tasa hauen ordainketarekin bateragarria izango.

Ekitaldi bakoitzaren lehen lau hilabeteen enpresak udal mugartearen barruan egindako hornidurengatik lortutako diru sarreren aitorpena egingo dute, aurreko urtean lortutako diru sarrera gordinak xehetasun osoz

de uso, acceso o interconexión a las mismas.

A efectos de lo dispuesto en esta ordenanza, se entenderá por ingresos brutos procedentes de la facturación aquellos que, siendo imputables a cada entidad, hayan sido obtenidos por la misma como contraprestación por los servicios prestados en cada término municipal.

No se incluirán entre los ingresos brutos, a estos efectos, los impuestos indirectos que graven los servicios prestados ni las partidas o cantidades cobradas por cuenta de terceros que no constituyan un ingreso propio de la entidad a la que se aplique este régimen especial de cuantificación de la tasa.

Las empresas que empleen redes ajenas para efectuar los suministros deducirán de sus ingresos brutos de facturación las cantidades satisfechas a otras empresas en concepto de acceso o interconexión a las redes de las mismas. Las empresas titulares de tales redes deberán computar las cantidades percibidas por tal concepto entre sus ingresos brutos de facturación.

El importe derivado de la aplicación de este régimen especial no podrá ser repercutido a los usuarios de los servicios de suministro a que se refiere esta ordenanza.

La tasa regulada en esta ordenanza es compatible con otras tasas que puedan establecerse por la prestación de servicios o la realización de actividades de competencia municipal, de las que las empresas a que se refiere esta ordenanza deba ser sujetos pasivos conforme a lo establecido en el artículo 23.1.b) de la Norma Foral 4/2003. De 19 de marzo de reforma del sistema de tributación Local, quedando excluida, por el pago de esta tasa, la exacción de otras tasas derivadas de la utilización privativa o el aprovechamiento especial constituido en el suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales.

Las empresas presentarán dentro de los cuatro primeros meses de cada ejercicio, declaración de los ingresos obtenidos en el año inmediatamente anterior.

<p>azalduz.</p> <p>Aipaturiko aitortpenarekin batera enpresaren kontabilitateko laburpena eta kasu bakoitzean Udal Administrazioak eskatuko dituen agiriak aurkeztu beharko dira.</p> <p>Udal administrazioak tasa honen zehaztapena edo behin-behineko kobratzea egingo du, hori egin ondoren 4 urteko epearen barruan ordaindu beharreko zenbatekoa zuzendu ahal izango duelarik eta, epe hori iraganik, hala badagokio, behin-betikotzat joko da.</p>	<p>Dicha declaración habrá de acompañarse de un extracto de la contabilidad de la empresa y de la documentación que en cada caso solicite la Administración Municipal.</p> <p>La Administración Municipal procederá a la determinación o cobro provisional de esta tasa, pudiendo rectificar la cantidad a satisfacer dentro del plazo de 4 años de haberse practicado la misma, transcurrido el cual se entenderá, en su caso, elevada a definitiva.</p>
--	---

<p><b>2.03.-TASA: TOKI PUBLIKOKO LURZORUA, LURRAZPIA EDO HEGALKINAREN ERABILPEN PRIBATUA EDO PROBETXAMENDUA.</b></p>	<p><b>2.03.-TASA: UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO DEL SUELO, SUBSUELO O VUELO DE LA VÍA PÚBLICA.</b></p>
<p><b>2.03.1.- 1. Artikulua.</b></p> <p>Ordenantza honek arautuko dituen aprobetxamenduko tarifak hauexek izango dira:</p>	<p><b>2.03.1.- Artículo 1.</b></p> <p>Las tarifas de los aprovechamientos regulados en esta Ordenanza serán las siguientes:</p>
<p><b>2.03.1.1.- Erabilera komuna:</b></p>	<p><b>2.03.1.1.- Uso común:</b></p>
<p>1.1.1 - Merkataritza eta industria jarduerak eta atxikitako elementuak:</p>	<p>1.1.1 - Actividades comerciales e industriales y elementos anexos:</p>
<p>1.1.1.1 - Aparatu automatikoak saltzeagatik tasa ondorengo tarifen arabera likidatuko da:</p>	<p>1.1.1.1 - Aparatos automáticos: la tasa por venta en aparatos automáticos se liquidará con arreglo a la siguiente tarifa:</p>

Baskula automatikoak eta antzeko aparatuak, urteko eta aparatuko	98,5 1	€	Básculas automáticas y aparatos similares, por cada año y aparato
Salgailu automatikoak, urteko eta salgailu bakoitzeko	50,4 8	€	Aparatos de venta automática, por cada año y aparato

1.1.1.2 - Mahaitxo bakoitzeko tarifa urtekoa eta zatiezina izango da, beti ere ondorengo mailaren

1.1.1.2 - La tarifa por veladores será anual e indivisible con arreglo a la siguiente tabla:

2 mahai	201,89	€	2 mesas
4 mahai	394,91	€	4 mesas
6 mahai	579,51	€	6 mesas
8 mahai	753,89	€	8 mesas
10 mahai	923,15	€	10 mesas
12 mahai	1.079,4 8	€	12 mesas
14 mahai	1.235,9 6	€	14 mesas
16 mahai	1.379,5 7	€	16mesas

1.1.1.3 - Olanak, itzalkinak, markesinak, eguzkitakoak eta antzekoak: olana, itzalkin, markesina eta antzekoen tarifa, hauxe izango da:

1.1.1.3 - Toldos, sombrillas, marquesinas, parasoles y similares: la tarifa de los toldos, sombrillas, marquesinas y similares, será la siguiente:



Olanak, 3 m <sup>2</sup> arte, urteko	19,7 0	€	Toldos, hasta 3 m <sup>2</sup> al año
Hortik gorako metro edo frakzio bakoitzeko	10,7 7	€	Por cada metro o fracción de exceso
Itzalkinak eta eguzkitakoak, m <sup>2</sup> -ko	19,7 0	€	Sombrillas y parasoles, por m <sup>2</sup>
Markesinak, m <sup>2</sup> -ko eta urteko	10,7 7	€	Marquesinas, al año por m <sup>2</sup>
1.1.2 - Herri jabarian dauden saltoki finkoak: saltoki finkoen tarifa hauxe izango da:		1.1.2 - Puestos de venta fijos en la vía pública: la tarifa de venta en puestos fijos será la siguiente:	
1.1.2.1 - Izoziak:		1.1.2.1 - Helados:	
Maiatzaren 1etik urriaren 31ra	500,9 0	€	Temporada del 1 de Mayo al 31 de Octubre
1.1.2.2 - Gaztaina-saltokiak:		1.1.2.2 - Castañas:	
Urriaren 1etik martxoaren 31ra postu bakoitzeko	125,1 9	€	Por puesto y temporada del 1 de Octubre al 31 de Marzo
1.1.2.3 - Txurro eta kausera denda:		1.1.2.3 - Churrería y buñolería:	
Hilabete edo gutxiagorako	250,6 9	€	Por mes o fracción
1.1.2.4 - Baimendutako bestelakoak:		1.1.2.4 - Demás artículos autorizados:	
Postu eta egun bakoitzeko (gehienez 5m <sup>2</sup> )	16,4 7	€	Por puesto y día (con un máximo de 5 m <sup>2</sup> )
<b>2.03.1.2.- Erabilera pribatiboa:</b>		<b>2.03.1.2.- Uso privado:</b>	
1.2.1 - Aisialdirako jarduerak: aisialdirako jardueretako herri jabaria harteagatik tarifak,		1.2.1 - Actividades recreativas: la ocupación de la vía pública para el desarrollo de	

Zirku-ikuskizunak edo antzekoak	219,90	€	Los espectáculos circenses o similares
Dantzaldiak, kontzertuak, antzerkiak eta antzeko dibertsio ekitaldiak eguneko	113,70	€	Bailes, conciertos, representaciones y diversiones análogas, por día
Atrakzioak, zabuak, zaldiko-maldikoak, feria-etxolak, tonbola komertzialak:	-		Atracciones, columpios, tiovivos, casetas de feria, tómbolas comerciales:
Feria etxolak, ml bakoitzeko eta eguneko	12,58	€	Casetas de feria, por ml y día
Noriak, zaldiko-maldikoak, baby karruselak, latigoak, e.a, egun eta metro diametro bakoitzeko	7,49	€	Norias, tiovivos, baby carrusel, látigos, etc., por día y m. de diámetro
Autotxokeak, m <sup>2</sup> -ko eta eguneko	3,85	€	Autochoques, por m <sup>2</sup> y día
Tonbola komertzialak, m <sup>2</sup> -ko eta eguneko	14,00	€	Tómbolas comerciales, por m <sup>2</sup> y día
Zabuak eta aurreko idatz-zatietan jasotzen ez diren antzeko okupazioak, m <sup>2</sup> eta egun bakoitzeko	2,05	€	Columpios y ocupaciones análogas no reflejadas en los apartados anteriores, se liquidará a razón de m <sup>2</sup> y día
Madalenetan (prezio bakarra Euskadiko Ferialari Elkarteak, edo parekoak, Fanderian instalatzen dituen postu eta atrakzio guztietarako)	530,40	€	Madalenas (precio único por el total de puestos y atracciones instalados en Fandería a solicitud de la Asociación de Feriantes de Euskadi o equivalente).
Inauteriak: prezio bakarra postu eta atrakzio guztietarako	713,15	€	Carnavales: precio único por el total de puestos y atracciones
Auzoetako jaiak: asteburuko prezio bakarra postu eta atrakzio guztietarako	30,78	€	Fiestas de barrio: precio único por el total de puestos y atracciones por cada fin de semana

Fidantza: aisialdiko jarduera bakoitzeko.	51,31	€	Fianza: por cada actividad recreativa
---	-------	---	---------------------------------------

1.2.2 - Kioskoak: kioskoak instalatzeko herri jabaria hartzeagatik, tarifa hauek ordainduko dira:

1.2.2 - Quioscos: Por el aprovechamiento especial de la vía pública mediante la instalación de quioscos, se estará a la siguiente tarifa:

ONCE kabinak:	-		Cabinas O.N.C.E.:
Lehena (hirigunea), urteko	319,64	€	Primera (centro urbano), al año
Bigarrena (gainontzekoak), urtean	211,89	€	Segunda (resto), al año
Bestelako erabilerak:	-		Otros usos diferentes:
6 m <sup>2</sup> edo gutxiagoko okupazioa hilabeteko	75,83	€	Con la superficie de ocupación igual o inferior a 6 m <sup>2</sup> por mes
Hortik gorako m <sup>2</sup> edo frakzio bakoitzeko, hilabeteko	23,55	€	Por cada m <sup>2</sup> o fracción, al mes

1.2.3 - Lurzoru, hegalkin eta lurrazpikoaren aprobetxamendu bereziek, tarifa hauek izango dituzte:

1.2.3 - Aprovechamientos especiales de suelo, vuelo y subsuelo, estarán sujetos a las tarifas siguientes:

Herri jabariaren lurrazpian dauden Industri eta merkataritza erabilerarako kamerak eta korridoreak ustiatzen dituzten enpresek eta partikularrek ordaindu beharko dituzte.

Están obligados al pago los particulares y empresas que exploten cámaras y corredores subterráneos para usos industriales y comerciales, situados en el subsuelo de la vía pública y terrenos del común.

Lurrazpiko kamara eta korridoreen ustiatzea:	-		Explotación de cámaras y corredores subterráneos:
m3 bakoitzeko, horma, azpiharri eta sabaiak barne, urteko	18,67	€	Por m3 incluidos espesores de muro, solera y techos, cada año
Hodi-kanalizazioak (zuntz optikoa) (€/ml/urteko)	10,77	€	Tubos de canalizaciones (fibra óptica,...) (€/ml/año)
Hargorri zubiko hoditeria, urteko:	423,74	€	Paso tubería puente Argorri, por año:
1.2.4 - Herri jabarian dauden hegalkinak:		1.2.4 - Voladizos sobre la vía pública:	
a) Markesinak: fatxadako m <sup>2</sup> bakoitzeko, urteko	2,27	€	a) Marquesinas: por cada m <sup>2</sup> de fachada, por año
b) Herri jabarian dauden beira-arak eta antzeko instalazioak m <sup>2</sup> edo frakzio bakoitzeko, urteko	4,88	€	b) Vitrinas y otras instalaciones similares que vuelen sobre la vía pública, por m <sup>2</sup> o fracción, por año
c) Olanak: fatxadako m <sup>2</sup> bakoitzeko, urteko	2,27	€	c) Toldos: por cada m <sup>2</sup> de fachada al año
1.2.5 - "Herriko jaietan, bestelako jaietan edota jaialdietan jartzen diren salmenta postuak":		1.2.5 - "Puestos ambulantes durante las fiestas patronales y otras festividades o festivales " cuyo contenido es el siguiente:	

Egitura duten salmenta- postuak: Metro linealeko eta eguneko	11,75	€	Puestos con estructura: Precio m. l./frac y día
Egitararik gabeko salmenta- postuak: Metro linealeko eta eguneko	6,42	€	Puestos sin estructura: Precio m. l./frac y día
Salmenta mugikorrek: Metro linealeko eta eguneko	14,93	€	Puestos móviles: Precio m. l./frac y por día
Argazki eta oroigarriak: Prezio bakarra jai egun guztietarako.	279,5 7	€	Fotos y recuerdos: Precio único para toda la fiesta.
Taberna eta hanburguesategia: Prezio bakarra jai egun guztietarako.	428,4 6	€	Bares y hamburguesería: Unico precio para toda la fiesta.
Kanpoko aldean jartzen den barratik: metro linealeko eta jai guztirako.	36,07	€	Barra exterior: el metro lineal/fracción para toda la fiesta.

1.2.6 - Añarbe 2.067.1 zk.ko herri lurra:

1.2.6 - Monte público nº 2.067.1 Añarbe:

Añarbe erabilera publikoa eta udal  
titularitatea duen mendiaren abeltzain  
aprobetxamendua:

Aprovechamiento ganadero del monte de  
utilidad pública de titularidad municipal  
Añarbe:

Ardi buru bakoitza, urteko	0,99	€	Por cabeza de ganado ovino, al año
Behi buru bakoitza, urteko	10,1 6	€	Por cabeza de ganado vacuno, al año
Zaldi buru bakoitza, urteko	10,1 6	€	Por cabeza de ganado caballar, al año
Erlezaintza:	-		Explotación apícola:
Erlauntza bakoitzeko, urteko	0,99	€	Por colmena, al año

1.2.7 - Baratza ekologikoak

1.2.7 - Huertas ecológicas

Tarifa urtekoa eta zatiezina izango da.

La tarifa será anual e indivisible

30 m <sup>2</sup> -ko baratza bakoitzeko, urteko	46,18	€	Por cada huerta de 30 m <sup>2</sup> , por año
60 m <sup>2</sup> -ko baratza bakoitzeko €/urteko	92,35	€	Por cada huerta de 60 m <sup>2</sup> , por año
Fiantza:	102,6 1	€	Fianza

1.2.8 - Saltzeko edo promoziorako ibilgailuak

1.2.8 - Vehículos para venta o promociones

Saltzeko edo edozein motatako promozioak egiteko ibilgailuak, ibilgailu eta eguneko

31,5  
0

€

Vehículos para venta o promociones de toda índole, por vehículo y día

1.2.9 - Fatxadetan ipinitako banatzaileak

1.2.9 - Dispensadores instalados en fachadas

Finantza-erakunde edo bestelako fatxadetan ipinitako hainbat produkturen banatzaileen aprobetxamendua (kutzazain automatikoak, vendin-ak, eta abar). Instalakuntza bakoitzeko (instalaziotzat hartuko da publikoari zerbitzua ematen dion puntu bakoitza), urteko edo frakzioko.

135,8  
6

€

Aprovechamiento con dispensadores de productos varios (cajeros automáticos, vending, etc.) instalados en fachadas por entidades financieras u otras. Por cada instalación (entendiéndose por instalación cada punto independiente de servicio al público), por año o fracción.

**2.03.2.- 2. Artikulua.**

**2.03.2.- Artículo 2.**

-

-

2.1.- Zirku edo antzeko ikuskizuna denean 307,84 €ko fidantza ezarriko da, eta udal teknikariek oniritzia eman ondoren itzuliko da.	-		2.1.- En el caso de espectáculos circenses o similares, se establecerá una fianza de 307,84 € que será devuelta una vez dado el visto bueno de los técnicos municipales.
2.2.- Negu garaiko tasa bereziak. Alegia: urria, azaroa, abendua, urtarrila, otsaila, martxoa eta apirila (Inauterietan izan ezik).	-		2.2.- Tasas especiales para invernar durante los meses de Octubre, Noviembre, Diciembre, Enero, Febrero, Marzo y Abril (excepto Carnavales).
Feria etxolak, hilabeteko edo frakzioko	181,5 7	€	Casetas de feria, por mes o fracción
Noriak, zaldiko-maldikoak, baby karruselak, latigoak, e.a., hilabeteko edo frakzioko	242,5 8	€	Norias, tiouvivos, baby carrusel, látigos, etc., por mes o fracción
Autotxokeak, hilabeteko edo frakzioko	482,5 9	€	Autochoques, por mes o fracción
Tonbolak, hilabeteko edo frakzioko	302,2 4	€	Tómbolas comerciales, por mes o fracción
Zabuak edo aurreko ataletan adierazitako antzekoak, hilabeteko edo frakzioko	242,5 7	€	Columnpios y ocupaciones análogas no reflejadas en los apartados anteriores, por mes o fracción

<b>2.04.-TASA: KAMIOI ETA PISU HANDIKO IBILGAILUEK ERRENTERIAKO UDALEKO AUZO-BIDEETAN IBILTZEA.</b>	<b>2.04.-TASA: UTILIZACIÓN DE CAMINOS VECINALES DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA POR CAMIONES Y VEHÍCULOS PESADOS.</b>
<u>EGINTZA ZERGAGARRIA</u>	<u>HECHO IMPONIBLE</u>
<u>1. artikulua</u>	<u>Artículo 1.</u>
Tasa honen egintza zergagarria da kamioiei eta pisu handiko ibilgailuei Errenteriako	Constituye el hecho imponible de la presente tasa, la autorización para utilizar, por

Udaleko auzo-bideetan ibiltzeagatik emandako baimena hurrengo kasuetan.

1. Aldez aurretik baimena eskatu beharko dute baimenik gabe ibiltzea debekatuta dagoela adierazten duten seinaleak dituzten auzo-bideetan ibiltzeko gehieneko karga bost (5) tonatik gorakoa izan eta urtean 50 bidaia baino gehiago egiten duten ibilgailuen jabeek.

2. Aurreko puntuan adierazitako baimena eskatu beharko da lursailak egokitu eta betetzeko eta zaborteziak egiteko lizentziatarako, baita harrobiak dauden gunek zaharberritu edo erauzte lanak eta antzeko jarduerak egiteko.

Jarduera horiek beste udalerrri batzuetan gauzatu arren Errenteriako auzo-bideetan ibili behar izanez gero, berorien titularrak udal baimena eskatu beharko du.

## ZERGA-OINARRIA

### 2. artikulua

Tasa honen zerga-oinarria dira kamioiek eta pisu handiko ibilgailuek garraiatutako materialaren (lurra, harkaitzak, agregatuak,...) metro kubikoak (m<sup>3</sup>), baita jarduera kokatua dagoen tokiraino iristeko ibilitako udal auzo-bideen kilometro kopurua ere.

## ZERGA-TIPOA

### 3. artikulua

1. Auzo-bideetan ibiltzeagatik ezarritako Zerga ordaintzetik salbuetsita daude 1000 m<sup>3</sup>tik beherako bolumena garraiatzeko emandako baimenak.

2. Baimena beharreko jarduera bakoitzeko 1000 euroko gutxieneko tipoa ezartzen da udal baimen bakoitzeko.

3. Udal tasa kalkulatzeko ondorengo formula aplikatuko da.

TASA (€) = 0'1 x bolumena m<sup>3</sup>-tan x km kopurua

camiones y vehículos pesados, los caminos vecinales del Ayuntamiento de Errenteria, en los casos siguientes:

1. Necesitan autorización previa para circular los vehículos en los caminos vecinales, en los que existirá señal de prohibición de circular sin autorización, todos los vehículos con carga máxima superior a cinco (5) toneladas, que además efectúen más de 50 viajes en un año

2. En las licencias de obras para acondicionamientos de terrenos, rellenos y vertederos, así como para restauraciones de espacios canterables y para actividades extractivas, y similares, se deberá exigir la autorización prevista en el punto anterior

Cuando dichas actividades se desarrollen en otros municipios, pero se necesite utilizar los caminos vecinales de Errenteria, también deberá contar su titular con autorización municipal.

## BASE IMPONIBLE

### Artículo 2.

Constituyen la base imponible de esta tasa tanto los metros cúbicos (m<sup>3</sup>) de volumen de material (tierras, rocas, áridos,...) transportado por camiones y vehículos pesados, como el número de kilómetros de caminos públicos municipales existentes hasta la ubicación de la actividad.

## TIPO IMPOSITIVO

### Artículo 3.

1. Quedan exentas del pago de la tasa aquellas autorizaciones de uso de caminos vecinales que supongan el tránsito o transporte inferior a 1.000 m<sup>3</sup> de volumen.

2. Se fija un tipo mínimo en cada autorización municipal de 1000 por cada actividad objeto de autorización.

3. Se aplicará la siguiente fórmula para el cálculo de la tasa municipal.

TASA (€) = 0'1 x volumen en m<sup>3</sup> x n° km

Donde 0'1 se corresponde con un coeficiente



Formulako 0'1, koefiziente finko bati dagokio, eta bolumena, berriz, m<sup>3</sup>tan Udalak edo ingurumenean eskumena duten autoritateek baimendutako bolumen osoa. Azkenik, kilometro kopuruarekin adierazten da baimendutako kamioiek edo ibilgailu astunek erabiltzen dituzten udal bide publikoen luzera. Ibilbide hori burutuko da eskualde-errepidearen eta isuria botatzeko baimena behar duen puntuaren artean.

4. Bideetako ezohiko kalteak, horiek sortzen dituen kamioiak ordainduko ditu, eta horretarako espedientea irekiko zaio.

## KUDEAKETA

### 4. arikulua

1.- Bideetan ibiltzeko eskatutako baimena jardueragatik ordaindu beharreko tasa ordaindu ondoren emango da, 3. artikulua arabera.

2.- Udaltzaingoak edo udal agintariek eskatuz gero, baimena erakutsi egin beharko da.

3.- Auzo-bideetan aurreko artikuluetan adierazitakoaren arabera emandako baimenik izan gabe ibiltzeak 3. artikulua ezartzeagatik ordaindu beharreko kopuruaren bikoitza ordaintzea ekarriko du. Kasu horretan, kobratzea Diru-Bilketaren Araudi Orokorrari jarraiki egingo da.

## SORTZAPENA

### 5. artikulua

Tasa ordaintzeko betebeharra sortzen da Udalak auzo-bideetan ibiltzeko baimena ematen duen une berean.

## ZERGA KUOTA

### 6. artikulua

Zerga kuota kopuru finko baten gainean ezartzen da, 3. artikuluan adierazitakoaren arabera.

fijo, y el volumen en m<sup>3</sup> hace referencia al volumen total autorizado por el Ayuntamiento o la autoridad ambiental. Finalmente, el número de kilómetros atiende a la longitud de caminos públicos municipales por donde deben discurrir los camiones o vehículos pesados autorizados. Obviamente este recorrido se desarrollará entre una carretera comarcal y el punto de vertido sujeto a licencia municipal.

4. Los daños excepcionales que puedan producirse en los caminos serán repercutidos a quien los ocasione, tras expediente instruido al efecto.

## GESTION

### Artículo 4.

1.- Solicitada la autorización para circular por los caminos, se concederá una vez realizada la autoliquidación por ingreso directo, de acuerdo con el art. 3.

2.-Dicha autorización deberá ser presentada con el requerimiento de la Policía Local o autoridad municipal.

3.- La circulación por los caminos vecinales, sin tener la autorización en los términos de los artículos anteriores, supone el abono del doble del importe que correspondería por aplicación del art. 3. En este supuesto el cobro se realizará conforme al Reglamento General de Recaudación.

## DEVENGO

### Artículo 5.

La tasa se devenga y nace la obligación de contribuir desde que el Ayuntamiento autorice la utilización de los caminos vecinales.

## CUOTA TRIBUTARIA

### Artículo 6.

La cuota tributaria se determina por una cantidad fija en los términos del art. 3.

<p><b>2.05.-TASA: JABARI PUBLIKOAN OBRA, ALDAMIO, EDUKIONTZI, GARABI, MATERIALAK METATZE, MUDANTZA EDO HORIEKIN LOTUTAKO BESTE JARDUEREN ERABILERA PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDUA.</b></p>	<p><b>2.05.-TASA: UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO DE LA VÍA PÚBLICA PARA OBRAS, ANDAMIOS, CONTENEDORES, GRÚAS, ACOPIO DE MATERIALES, MUDANZAS U OTRAS ACTIVIDADES VINCULADAS.</b></p>
<p>Atal honetan sartuta daude obrak egin edo lizentzia eman ondoren partikularren esku-hartzearekin lotutako jarduera guztiak. Eta horrek baldin badakar jabari publikoa behin-behinean hartzea, aldamio, edukiontzi, garabi, karga-jasogailua nahiz materialak edo beharrezko beste edozein elementu laguntzaile metatzea horrelakoren bat instalatu behar denean.</p> <p><b>2.05.-.- Tarifak</b></p>	<p>Este apartado incluye todas aquellas actividades vinculadas al desarrollo de obras o intervenciones particulares concedidas previa licencia y que supone la ocupación temporal del espacio público para la instalación de andamios, contenedores, grúas, montacargas, acopios o cualquier otro elemento auxiliar necesarios en su ejecución.</p> <p><b>2.05.-.- Tarifas</b></p>
<p>-- Tarifak</p>	<p>-- Tarifas</p>

Espaloian edo oinezkoen gunean erreserbatutako MI: €/ml eta aste edo frakzioko.	2,3 8	€/ml	MI de reserva de espacio en acera o zona peatonal: €/ml y semana o fracción.
Galtzadan edo aparkaleku guneetan erreserbatutako MI: ml eta aste edo frakzioko.	3,6 4	€/ml	MI de reserva de espacio en calzada o zona de estacionamientos: €/ml y semana o fracción.
Okupazio lineal hori baimenduko da gutxieneko beharrezko zabalerrako eta gehienez bi metrorako.	-		Esta ocupación lineal se autorizará para el ancho mínimo necesario y hasta un máximo de dos metros.
Beharrezkoa denean zabalera handiagoko okupazioa eremu jakin batean, sortutako eremuan m2 bakoitzeko prezio hauek ezarriko dira.	-		Cuando fuera necesaria una ocupación de anchura superior que suponga un área determinada, se aplicarán los siguientes precios para cada m2 del área generada.
Espaloian edo oinezkoen gunean erreserbatutako M2: €/m2 eta aste edo frakzioko.	1,2 3	€	M2 de reserva de espacio en acera o zona peatonal: €/m2 y semana o fracción.
Galtzadan edo aparkaleku guneetan erreserbatutako M2: m2 eta aste edo frakzioko.	1,8 0	€	M2 de reserva de espacio en calzada o zona de estacionamientos: €/m2 y semana o fracción.
Beste igoera batzuk	-		Otros incrementos:
Okupaziorako beharrezkoa balitz ibilgailuak ateraraztea, erretiratutako kotxe bakoitzeko ondorengo euro kopurua igoko da, era bakarrean eta lehen aldian soilik.	3,9 0	€	Si para la ocupación fuera necesario el desalojo de vehículos, se incrementarán los siguientes euros por cada vehículo retirado, de manera única y solo la primera vez.
Gainera, TAOk erregulatutako eremuko aparkalekuetan eragiten denean, ondorengo euro kopurua igoko da astean (edo frakzioa bigarren egunetik aurrera) ezabatutako aparkaleku bakoitzeko.	4,9 8	€	Cuando además resultaran afectados estacionamientos comprendidos en zona de regulación OTA, se incrementará en la siguiente cantidad a la semana (o fracción a partir del segundo día) por cada estacionamiento anulado.

<p><b>3.-ONDORENGO ZERBITZUAK ESKAINI ETA AKTIBITATEAK EGITEAGATIKO TASAK.</b></p>	<p><b>3.-TASAS POR PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS Y LA REALIZACIÓN DE LAS ACTIVIDADES SIGUIENTES.</b></p>
<p><b>ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.</b></p> <p><u>I. XEDAPEN OROKORRAK.</u></p> <p><u>1. Artikulua.</u></p> <p>Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.</p> <p><u>2. Artikulua.</u></p> <p>Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.</p> <p><u>II. ZERGAGAIA.</u></p> <p><u>3. Artikulua.</u></p> <p>Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.</p> <p><u>III. SUBJEKTU PASIBOA.</u></p> <p><u>4. Artikulua.</u></p> <p>1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.</p>	<p><b>ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACION DE SERVICIOS PUBLICOS Y REALIZACION DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS.</b></p> <p><u>I. DISPOSICIONES GENERALES.</u></p> <p><u>Artículo 1.</u></p> <p>Esta Entidad Local, de acuerdo con la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece y exige tasas por la prestación de los servicios y la realización de las actividades que se recogen en el Anexo, en los términos de la presente Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.</p> <p><u>Artículo 2.</u></p> <p>La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial de la Entidad Local.</p> <p><u>II. HECHO IMPONIBLE.</u></p> <p><u>Artículo 3.</u></p> <p>Constituye el hecho imponible la efectiva prestación del servicio o realización de la actividad por la Administración Local, bien porque haya sido instada, bien porque indirectamente haya sido provocada por las acciones u omisiones de los particulares.</p> <p><u>III. SUJETO PASIVO.</u></p> <p><u>Artículo 4.</u></p> <p>1.- Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que soliciten los servicios o actividades o que resulten beneficiadas o afectadas por aquéllos.</p>

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.

c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obra eraikitzaileak edo kontratistak.

## 5. Artikulua.

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

## 6. Artikulua.

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

## V. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK.

### 7. Artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan

2.- Tendrán la condición de sustitutos del contribuyente:

a) En las tasas establecidas por razón de servicios o actividades que beneficien o afecten a los ocupantes de viviendas o locales, los propietarios de dichos inmuebles quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiario/as.

b) En las tasas establecidas por la prestación de servicios de prevención y extinción de incendios, de prevención de ruinas, construcciones y derribos, salvamentos y, en general, de protección de personas y bienes, comprendiéndose también el mantenimiento del servicio, las entidades o sociedades aseguradoras del riesgo.

c) En las tasas establecidas por el otorgamiento de las licencias urbanísticas previstas en la normativa sobre el suelo y ordenación urbana, los constructores y contratistas de obras.

## Artículo 5.

Están obligados al pago de las Tasas:

a) En el caso de servicios o actividades realizados a solicitud de los particulares, quienes lo soliciten.

b) En el caso de servicios o actividades realizados sin haber sido solicitados por los particulares, pero motivados por actuaciones u omisiones de ellos, aquellos a quienes les sean imputables dichas actuaciones u omisiones.

## Artículo 6.

Junto al sujeto pasivo responden de las deudas tributarias que se deriven de esta Ordenanza las personas que en su caso se mencionen en las normas de aplicación de las Tarifas.

## IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES.

### Artículo 7.

La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en

ezarritakoaren arabera emango dira.

#### V. OINARRI EZARGARRIA.

##### 8. Artikulua.

Oinarri ezargarría zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzten du, Eranskinen jasotakoaren arabera.

#### VI. KUOTA.

##### 9. Artikulua.

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinen ezarritakoaren arabera.

#### VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA.

##### 10. Artikulua.

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

#### VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA.

##### 11. Artikulua.

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

#### IX. TASEN KUDEAKETA.

##### 12. Artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

#### X. AMAIERAKO XEDAPENA.

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin

las disposiciones generales de aplicación.

#### V. BASE IMPONIBLE.

##### Artículo 8.

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice el servicio, en los términos contenidos en el Anexo.

#### VI. CUOTA.

##### Artículo 9.

1.- La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el Anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

#### VII. DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO.

##### Artículo 10.

1.- La tasa se devenga cuando se realiza el servicio o actividad.

#### VIII. LIQUIDACIÓN E INGRESO.

##### Artículo 11.

Por la Administración Local se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose la cantidad liquidada en metálico conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

#### IX. GESTIÓN DE LAS TASAS.

##### Artículo 12.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como a la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

#### X. DISPOSICION FINAL.

La presente Ordenanza, con su Anexo, fue aprobada definitivamente en la fecha que en

betikoz. 1999ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

Eranskinak ondorengoak direlarik:

éste se indica, entrará en vigor el 1 de enero de 1.999 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

Siendo sus anexos como siguen :

<b>3.01.-TASA: UR-HORNIDURA ETA ESTOLDERI ZERBITZUA.</b>	<b>3.01.-TASA: SERVICIO DE SUMINISTRO DE AGUA Y ALCANTARILLADO.</b>
<b>3.01.-.- 7. artikulua. Zor-sortzapena</b> Sortzapena hiruhilabetetik behin izango da.	<b>3.01.-.- Artículo 7. Devengo.</b> El devengo será trimestral.
<b>3.01.1.- 1. Artikulua</b> Karga oinarria burututako ur-kontsumoa izango da, metro kubikotan adierazia.	<b>3.01.1.- Artículo 1</b> La base del gravamen será el consumo de agua efectuado, expresado en metros cúbicos.
<b>3.01.2.- 2. Artikulua</b>	<b>3.01.2.- Artículo 2</b>
- - Karga motak ondorengo epigrafeetan adierazten direnak dira:	- - Los tipos de gravamen son los determinados en los epígrafes de la siguiente tarifa:

1.- Zerbitzua erabiltzaileko kuota finkoa (€/hiru.):	-		1.- Cuota fija de servicio por usuario (€/trim.):
1.1.- Etxeko erabiltzailea	10,47		1.1.- Usuario doméstico
1.2.- Mekazaritzako-abeltzaintzarako erabiltzailea	20,26		1.2.- Usuario agrícola-ganadero
1.3.- Etxekoa ez dena	30,45		1.3.- Usuario no doméstico
2.- Kontsumitze-kuota:	-		2.- Cuota por consumo:
2.1.- Etxeko kontsumoa	0,84	€/m3	2.1.- Consumo doméstico
2.2.- Nekazaritza-abeltzaintzako kontsumoa:	-		2.2.- Consumo agrícola-ganadero:
Hiruhilabeteko 60 m3. arte:	1,21	€/m3	Hasta 60 m3/trim.
Hiruhilabeteko 60 m3 baino gehiago	1,57	€/m3	Más de 60 m3/trim.
2.3.- Etxe-kontsumorako ez dena:	-		2.3.- Consumo no doméstico:
2.3.1.- hiruhilabeteko/30 m3 arte	1,63	€/m3	2.3.1.- Consumos de hasta 30 m3/trimestrales
2.3.2.- hiruhilabeteko/ 30 eta 100 m3 bitarte:	2,31	€/m3	2.3.2.-Consumos de 30 hasta 100 m3/trimestrales
